

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4696

*287/2022 EBAZPENA, irailaren 15ekoa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Kepa Xabier Ugalde Goñi jauna Txorierriko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren lanpostutik kentzen den, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko Erakunde Sanitario Integratuan.*

Abenduaren 2ko 476/2021 Ebazpenaren bidez, Kepa Xabier Ugalde Goñi jauna izendatu zuten Txorierriko Lehen Mailako Arretako Unitateburu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESlan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Kepa Xabier Ugalde Goñi jauna Txorierriko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren lanpostutik kentzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESlan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko irailaren 16tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Uribeko ESlari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urduliz, 2022ko irailaren 15a.

Uribeko ESlko zuzendari-gerentea.

EB (170/2021 Ebazpena, martxoaren 30ekoa).

Langileen zuzendaria,  
IANIRE LAMIKIZ MOREIRA.